



URRIA

“Ikastetxetik Zuengana” bukatu genuen bezala, ¹ elcolegioinforma@marias-gasteiz.org helbidean eskaera egiten duten familiei posta elektronikoa bidez bidaliko zaie (eman seme-alabaren kurtsoa); ² ikastetxeko webgunean zintzilikatuko da; ³ atezaintzan ale batzuk utziko dira eta ondorioz ez da etxeetara bidaliko. (Agenda 21)

S	1	◆ Frantziakoekin ikasle-trukea (4.DBH)
D	2	
L	3	◆ 3.DBH Barnetegia Beintzan ◆ Eskolaz kanpoko ekintzen hasiera
M	4	
X	5	◆ 3.DBH A Barnetegia Beintzan ◆ DBH-BATX. ELKARBIDEA, 20etan guraso bilera
J	6	
V	7	◆ Atzerrirako udako kurtsoen diru-laguntzaren epe amalera (3.DBHtik BATXILERGORA.) ◆ ELKARBIDEA: Ostiraleko bileren hasiera.
S	8	
D	9	
L	10	◆ 17.45 Eskola kontseilua 1
M	11	
X	12	<i>Pilar</i> festa ◆ Hasierako mendi irteera BAIOr
J	13	
V	14	◆ Cambridgerako matrikularen amaiera (DBH eta BATX.)
S	15	
D	16	◆ Eukaristia familiarra Estibalizen
L	17	
M	18	
X	19	
J	20	
V	21	
S	22	
D	23	
L	24	
M	25	<i>Euskadi</i> eguneko festa ◆ Santiago bidearen 1go etapa: Tolosa – Beasain
X	26	
J	27	
V	28	
S	29	
D	30	
L	31	<i>Santu guztien eguneko zubia</i>

HH: Haur Hezkuntza LH: Lehen hezkuntza DBH: Derrigorrezko bigarren hezkuntza Batxilergoa



*Ikastetxe marianistak A.Chaminaderen deiari erantzuten diote: “**Guztiak zarete misiolariak**”; eta ikasle, guraso, irakasle eta proiektu honetan parte hartzen duten guztiak animatzen ditu, hau da, Nazaretoko Jesus ezagutu eta hari jarrai diezaioten, bere maitasunean eta lagun hurkoaren zerbitzuan.
(Gogo oinarria)*



1 DBH: BIZIKIDETZA, ZUAZA(1go eta 2.mailak) eta BEINTZA (3.maila)

Aurtengo iraila eta urriaren hasiera eskolaz kanpoko aktibitate ezberdinez beteta egon da DBHko 3 kurtsoentzako.DBHko lehenengo zikloko 8 gelek Zuazako irla hartu dute eta bai ikasle zein irakasleak poz-pezik bueltatu dira.Berdina gertatu zaie Beintzako barnetegian izan direnei ere bai, eta ahal izanez gero aste osora luzatuko lukete irteera. Hasierako irteera hauek taldeak sendotzeko, Euskara indartzeko eta ikasle-irakasleak hurbiltzeko balio izan dute.



2 IKASLE-TRUKEA FRANTZIAKOEKIN (4.DBH)

Dagoeneko iritsi dira Pariseko "St Anthony" marianistak eskolako 30 ikasleak. Aste oso bat igarokodute gure eskolako ikasleentzako, familietan, Elkar ezagutzeko asmoz, hizkuntza praktikatzeko eta beste hainbat bizipen bizitzeko. Astelehen honetan Udaletxean hartu dituzte. Beraien artean sortu den harremana ezinhoba da eta bigarren hiruhilabetean gu joango gara Frantziara.

Argazkia: [Udaletxera egindako bisita.](#)



3 EGUERDITAKO LIBURUTEGIA

Astelehenetik ostegunera bitartean, 14etatik 15etara, liburutegi zerbitzua izango da LHko 3. mailatik gorako haurrentzat. Etxeko lanak egiteko eta ikasteko leku aproposa izango da, eta honetarako behar den isiltasuna mantenduko da. Beraz, ez da talde lanak egiteko lekua izango, bakarkako lana egiteko lekua baizik.



4 FAMILIEN PASTORALA: Eukaristia Estibalzen urriak 16an

Hainbat familia urduri daude Familien Pastoraletik animatzen diren proposamenekin. Seme-alabei balore batzuk, bizitzeko modu bat, fede bat...transmititzera animatzen da. Eta horrela, urriaren 16an Estibalzen egingo den lehenengo eukaristia gonbidatzen gaituzte. Bakoitzak bere janaria eramanez gero, egun zoragarri bat igarotzeko aukera izango dugu. Adi egon, izan ere, berehala abisatuko digute ordutegia.



5 ELKARBIDEA: guraso bilera, bileren hasiera eta mendi irteera

Elkarbideako monitoreek ilusio handiz ematen diote hasiera kurtso berriari: logo berria, presidente berria-Natxo Murua- eta aktibitateen hasieran egiten zen irteera berreskuratu dute.Egun batzuk lehenago guraso bilera izango da-asteazkena 5:20etan- eta aktibitateen hasiera ostiralean, urriaren 7an.BAIOko irteera berriz, urriak 12an, Pilar egunean, izango da, inork galdu ezin duen ibilalditxo. Gainera, egun zoragarria alkilatuko dugu! Ez ahaztu beraz data guzti hauek ondo apuntatzeaz!



6 BESTE BATZUK

- ☒ Ingeleseko azterketak, Cambrigde unibertsitatea. Izen emateko epea urriak 14an bukatuko da (idazkaritza)
- ☒ Atzerrirako udako kurtsoen diru-laguntzaren epe amalera (3.DBHtik BATXILERGORA.)
- ☒ Eskolaz kanpoko ekintzak: Urriaren 3tik aurrera hasiko dira denak.



7 SANTIAGO BIDEA familia,lagun eta gazteentzako: urriak 25

Pasaden hilabetean eman genuen aditzera. Jadanik asko apuntatu dira idazkaritzan baina oraindik ere badaude hainbat plaza.Animatu eta eman zure izena Araceliri! Ez utzi biharko, agian beranduegi izan daiteke eta. Apuntatu zaretenoi esango dizuegu irteera ardua eta lekua. Irteera honen inguruan gehiago jakin nahi izanez gero aurreko deialdia begira dezakezue. Izen emateko azken eguna urriak 14.



8 LITERATURA KAFEAK: URRIAK 21 BAINO LEHENAGO

Kurtso hasierako guraso bileretan aipatu genuen. Iritsi da literatura kafeei hasiera emateko momentua. Interesatuta gaudeniok proposatutako erritmoari jarraituz bilduko gara, aukeratu dugun liburuari buruzko ideiak, komentario zein iradokizunak konpartitzeko.Izen emateko azken eguna urriak 21.



9 BIZIKLETA ZEIN PATINETE ISTRIPUAK...ERRESPECTU ETA DEBEKUA

Duela egun batzuk Batxilergoko ikasle batek beste ikasle txiki bat harrapatu zuen bizikletarekin: urgentziak, puntuak, susto galanta...Oraindik ere guraso eta ikasle askok bizikleta eta patinetez ibiltzen jarraitzen duzue eskola barruan. Debekatuta dagoela gogorarazten dizuegu eta MESEDEZ errespetuz arau hau betetzeko eskatzen dizuegu, beste sustorik gerta ez dadin. Denon ardura da. Denon artean bizikidetzan on bat lor dezakegu eta ez izan beldurrik araua apurtzen duen edonori zerbait esateko. Eskerrik asko.

